- Ta hori bi bizitzakua edo halakon bat da?

- Bat, bat.

- [...]

- Hogeta hiru hori, ez?

- Bai.

- Eta gero beste bat Ugarte zan, ta hau bota ein zebeñ fabrikak eitteko. Hau izengo da?

- Hori ze dao Mougaiñekuan parian gora zuzen?

- Hau dao Mualdekotik... Mualdekotik Muñao aldera. [...] hau dan ala hau dan Mualdekua ta hau dan Uarte...? Horixe ez dakit...

- [...].

- Bai, junto... Hemen.

- Ba, hau mapa [...].

-Hemen... Moazpikua hau lehelengo daonau. Gero Mougaiñekua. Ta Mougaiñekotik... Mougaiñekotik situatzeko... aber...

- Hau zein da?

- Hau ta hau ez dakit, ba, zeintzuk dian... Hor dare... Ugarte...

- Hau ez da etxia, e?

- Hau ez da etxia?

- Ez.

- Ez?

- Ez dot uste.

- Bestia... Aizkoi be ondio han dao...

- Hau dao trenbidian parian justu-justu azpixon, trenbidian kontran.

- Bai. Hau da Mu...

- A! [...].

- ... Moualdekua.

- Trenbidian azpixon badao Moualde hori, bai.

- Seguro?

- [...].

- Moualdekua...

- Mougaiñekua be trenbidian azpixon dao.

- Mougaiñekua?

- Bai.

- Bai, bixak dare [trenbidian].

- Zentrala agertzen da hemen, zentralik markatzen dau?

- Eske Mouko torria dao, ba, trena pasatzen zan...

- [...].

- Hau izango da zentrala...

- Zentrala hori izengo da.

- Eta zentralan azpixon Mougaiñekua hau.

- Hogeta bi. Bai.

- Eta Mougaiñekua eta hau...

- [...]

- Moualdekua.

- Mou aldekoa.

- [Soraluce] parian atzian dauana. Orduan hauxe izengo da.

- [...].

- Ta gero [Moaurdi] gaiñian daona.

- ... kontra-kontran.

- Bai, [...] kontran daona.

- Eta beste bat dao gorao... [...]...

- Hau izengo da zera...

- Ez. Eta hau... hor estaziñuan edo kasetan bat edo ez zan egongo?

Trenbidian kontra-kontra-kontran, trenbidetik bost metrora.

- Bai, pasaiatzen-eta ondikan han dao erdi...

- Zentrala, zentrala.

- Hori da, hori da zentrala, ez?

- Hori estaziñoko zentrala izengo da hotxe?

- Bai. Hogeta lau.

- Ondiokan martxan dao hori?

- Bai.

- Hogeta lau, gorauan zentrala.

- Trenbidian onduan, e!

- Bai.

- [...] pegante.

- Ta hau [Arandokua, [Arando gaiñekua], ta hau Mouazpikua, [...] situatzeko.

## 22. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/022
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 01:39:54. **Bukatu:** 01:44:54

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Bergarako herriguneko toponimia.</p>

#### Transkripzioa

- Ta gero Ugarte ta Aizkoi be San Lorentzokuak die. Baiña oin ez dakit esistitzen daben hemen mapan. Osea, aber... zentraletik Mekolalde aldera.
- [...]
- Ez dia hartzen...? Bueno, ba, orduan, jai. Besteik ez dao San Lorentzon.
- [...] jasoko douz [hurrengo beste baten].
- Besteik ez dao San Lorentzon.
- [...] San Lorentzon ta [...].
- Ta hemen Moualdekotik eta... Moualdekotik eta Ugartera bittartian itturri bat be bai oso famosua Anttintturri esaten jakona bizi guztian. Ta guk Harriturri izen, baiña Anttintturri esaten jakona. Anttintturriko itturrixa. Baiña hori be ez dau hartzen. Hori be San Lorentzo da. Gero bale. Oin ez jata akordatzen besteik.
- [...] bueno, aparte lagata...
- Anttintturri itturrixa.
- Ta gero haren onduan zan Ugarte basarrixa, eta pixkat ezkerrerao Aizkoi. Nahi badozue apuntau. Horrek be San Lorentzokuak dia.
- Gora etorriko gara?
- Oin nora?
- Muertzatik kale aldera?
- Oin zure barrixora, orduan...
- Zubitta hori nundik nora dao? Hor Muertza gaiñetik nora dator goraiño?
- Bai, lehelengo-lehelengo...
- Hona behera.
- ... aber...
- Hona Infernuko eskiña ingurura...?
- [...] etxia, [...ko] etxia izengo da lehelengua.
- Infernuko eskiñaraiño edo holakon bat?
- Hortik Infernuko kantoira.
- Oseake... hau Infernuko kantoia.
- [...]?
- [Alde bixetatik daren etxiak dia Zubitta], ez?
- Bai, bai.
- Hau ez da Infernuko kantoia, e?
- Zubixa...
- Hau da...
- Hori ez da [...ko] zubixa?
- Hau nere etxia da, hau da [Etxeaundi] ta hori [Etxeaundiko] zubixa.
- Bai, [...] urriñaio ondio. [...].
- Hortxe, hortxe, [...].
- Santamaiña, Santamaiñako zubixa.
- Hori izango da Santamaiñako errekoa ta hau Usondoko parkia ta... [...] hemendik honutz, hemendik honaiño edo ez dakit noraiño [...]. Bueno, orduan...
- Kaliak be izen berdiña dauka, ez?
- Zubitta. Bai, Zubitta. Ez jau sekula beste modu baten esan. Zubitta.
- Ze numero da hori?
- [...]
- Hogeta bost.
- Bai.

- Ba, lehen etorri [zaran]... aber... Muertzako... Uztarriñeko... Uztarriñeko aldian edo Unzuetaneko aldetik, ez, Unzuetaneko aldetik lehelengo etxia Iturrondokua.

- Erreka aldetik dao hori? Kamiñuaz erreka aldetik?

- Bai, erreka aldetik. Aber hor mapan situatzen [naizen].

- Lehelengo etxia?

- Iturrondokua.

- Hor hiru etxe dare, ez?

- Bai, Iturrondokua, Zesteruanekua ta Odriozolanekua?

- Lehelengo Iturrondokua. Gero?

- Zesteruanekua, guk hola esan izan jau, eta Odriozalanekua.

- Baiña separauta dare hirurak?

- Bai, [...].

- Bai. Bueno, lehelengo bixak... ez, separauta.

- Danak dare separauta?

- Eta gero Aranzabalenekua oin bota dabena. Horri ez dakit ze izen esan. Gorlanekua be bizi zian...

- Gorlanekua...

- Ez dakit Gorlanekua edo etxia ez ote zotsen esaten lehenau, Gorlatik bajautakuak zien ta.

- [Gorlan ...].

- Eta [behin ya] Aranzabalenekua guk ezautu dou hor bertan.

- Eta zubixai?

- Zubixai Santamaiñako zubixa. Ez, ez...

- Ez, ez, Usondokua.

- Usondoko zubixa bai.

- Usondoko [...].

- Hogeta hamar?

- Hogeta hamar.

- Bai, Usondoko zubixa horri. Ya alde hortan segiduko dou bertan aurreraiño, [Berdokoaiño].

- Ez dao gehixao...

- Bai, bai...

- A! Bai...

- Usondoko zubixa pasau eta hurrengo, ba, Patxi Uberan taillerra? Zela esaten jakon hari?

- Zerria.

- Zerria, Patxi Uberan zerria hurrengo, oin sozidadia ta ez dakit zertzuk daren hor.

- Gero?

- Patxi Uberan zerratik hurrengo...

- Aapittoneko etxia.

- Zela?

- Agapittonekua. Baiña Aapittonekua baiño lehenao ez [...] txiki haura? [...] dabena?

- [...]

- Ez, beste [...]. Baiña Aapittonekua bai. Eta gero... Aapittonekotik hurrengua Anguako etxia, Igartuanekua...

- [...], itxoin, itxoin, itxoin, [horrek] beste izen bat [dauka].

- Anguako etxiak?

- Mariano kojuana.

## 23. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/023

• **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 01:44:54. **Bukatu:** 01:49:54

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

**Laburpena:**

<p>Bergarako herriguneko toponimia.</p>

**Transkripzioa**

- Zeiñi esaten [...] Mariano kojua?
- Horren aitta.
- Igartuanekua esan jau izena [beti]; zela esaten gontsan etxiai? Igartuaneko etxia.
- Mariano [kojua...].
- Baiña Mariano kojua etxia zein da Igartuan etxia?
- Igartuan etxia. Horren aitta, honen aittajuna.
- Nik Igartuaneko etxia.
- Anguanekua...?
- Hurrengo etxia Mariano kojua?
- [...].
- Baiña zelan? Mariano kojua...?
- Mariano kojua etxia, Mariano kojua...
- Gero Igartuanekotik hurrengua Teresionekua. Eta gero Juan Marianekua, [...]. Beste izenez hola hor etxeik...
- Eta Juan Marianekua edo hori oso luzia zan?
- Bai.
- Bai, bai...
- Eta ez dao besteik?
- Bi [artzai] edo... Beste [...], baiña hola izenez esateko... Horko [dendiai...]
- ...
- [...] azpitan [dauka hortaiko] taillarra [...] garaje moduko bat ta gaiñian etxia. Luzia. Han akabau eitten da ta gero bittartia, [berriro] bittartia [kantoira] begira haura.
- Ta horren bittartiorren izena?
- Infernuko kantoia hori.
- De toda la vida.
- Infernuko kantoia.
- Joe, [...]
- Hogeta hamazazpi hori, ez?
- Bai.
- [...]
- Bai, baiña lehelengo [...] ein bihar dabe, gero ipiniko dittue.
- Bueno, baiña...
- Entendiduko dou, e?
- Hemen garbi geratzen da.
- [...] akabatzen da] Zubitta erreka aldetik. E? Erreka aldetik akabatzen da Zubitta. Oin, Infernuko kantoian bestekaldian lehelengo etxiak...
- Bueno! Oin tokittara [...]!
- Behetik hasiko gara...
- Edo berriz atzera behetik gora?
- Behetik hasiko gara...
- Bueno, ba, aber...
- Bestekaldia, ez?

- Bestekaldia. Iturronduan parian lehelengo etxia, aber.

- Hor eskolak eta daozen...

- Hau... hor dao etxe bat... Osea, kamiñuan kontran dare etxe-illaria, ez? Ta bat lehelengua [hemen ...tik] hasitta, bat dao bestiak baiño atzerao...

- Eskolia hori.

- Eskolia haura.

- Numerua?

- [...]

- Eskolia, [Zubittako] eskolia. Baiña hori ondio berrixa da, e! Ondio ez da... Gero eskolian parian behian Galdosenekua?

- [...].

- Galdosenekua? Ta gero Karlozenekua hurrengo? Aber, akordau...

- [...]

- Ta, orduan, eskolia ipni dozue, gero Galdosenekua. Edo Galdosen etxia, nahi dozuen moduan hori be. Guk Galdosenekua.

- Galdosen etxia ze da hogeta hemeretzi?

- Bai.

- Hurrengua?

- Txarlesenekua.

- Baiña pegante dao, ez?

- Bai, segidan.

- Danak pegante dare beheraiño.

- Gero Zokoteiñekua.

- Hurrengo pegante ondio?

- Baita hori be. Segido Kaximironekua hurrengo.

- Pegante hori be?

- Bai. Gero Aperribai, Aperribaiñekua, baiña hori Aperribai basarrixa da...

- Itxoin, itxoin, itxoin. Antxiñako izena...

- [...]

- ... Maria [Seguresia].

- Hori zeihen izena da Maria [Seguresia]?

- Aperribaiñekuak oin bizi diana.

- Hor zan Maria [Seguresia], guk mutikotan ezautu giñuan.

- Aperribaiñekuak baiño lehenao...

- Bai, zatixa.

- Baiña gero guk gure denporan Aperribaiñekua esan guk.

- Baiña, aber, Zorkoteiñekua, Kasimironekua ta gero?

- Ba, Aperribai.

- Ba, hori ez dot apuntau.

- Hori etxiori bestiak baiño haundixaua da?

- Hori etxe bakarra, bi pisokua, haundixa ez da. Haundixa izango da...

- Joakinana.

- Joakinana?

- Bai. Ta hori da txiki bat Aperribaiña ta Maria [Seguresiana]. Ta Joakina da haundi bat.

- Aperribai eta hurrengua Joakina?

- Joakina.

- [...] Aperribaiñekua ta Maria zer?

- Bixak [bardiña].

- Baiña zer [zan...]?...?

- Ta hurrengo Joakiñanetik Xabalenekua?

- Ta hor bittarte bat badao [...].

- Xabalenekua. A! Ta gero oin ixixa jausixan daon Txantonenekua.

- Txanton, Txantonenekua.

- Txanton y compañía Donostian preguntau [...] Txantonenekua [...] Donostiara ta galduta ibili zianian “¿Txanton y esos ya has visto?”

Donostian preguntaka aguazillai. Gero Arandoneko tabernia hurrengo. Txantonenekua ipini behintzat, e! Hori [...] famosua izan da ta!

## 24. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/024
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 01:49:54. **Bukatu:** 01:54:54

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Begarako herriguneko toponimia.</p>

### Transkripzioa

- Baita Arandonekua be.
- [...] Arandonekua, ba, tabernia bizi guztian ta ez dakit [ostian] zegaittik esaten jakon Arandonekua.
- Baiña etxiai be...?
- Arandoneko etxia guk. Arandoneko tabernia ta...
- Bai, Arandonekua.
- Eske apellidua be ez dakit Barrenetxea-Arando ez ete dauken horrek.
- [...].
- Eta hor parian... bueno, Arandonekua, eta hurrengo etxia nola esan dozu?
- Arandonekuan hurrengo Enterradorianekua edo [ez dakit]...
- Ez, ez... [...].
- Arandonekua... gero Juananeko dendako [...] ez dakit ze izen ekan harek, eskudodun etxetxo bat da, baiña... Baiña ez dakit, izenez ez jau hari hola espezialik esan. [Zuek ez bajatzue esan ezer]...
- Bai, eskudua daka, gaiñera...
- Bai, baiña ez jau esan hari berari espezialik ezebe. Arandonekua ta gero hurrengo Enterradorianekua eta Sebastianenekua eta holakuak bai han inguruan. [...] baiña gehixao [...]. A! Ta [Inaxio panaderokua] be bai. Horrek danok illaran.
- Baiña hori nun dao? Enterradorianekua, hori zein da?
- Arandonetik, ba, hurrengua ez ta hurrengua edo hola.
- [Hau hirugarrena].
- Hor etxe haundi hori ze ete da, ba, hori haundi hori?
- Hori dao...
- [...]
- ... zubixan pare-parian.
- A! Hori Inazio panaderuana.
- Baiña...
- Hor jaso zittuen etxiak gora. No?
- Zerana, Sebastianena.
- A! Sebastianena, orduan, [...]...
- [...] ta gero ze esan dozue?
- Senbastianena.
- Da hori? Etxe haundi hori?
- Haundi hori da Sebastianena?
- Bai?
- Eta bittartian... zera, karnizerua ta...
- Estanisenekua?

- A! Estanisenekua.

- Hori zein da?

- Hori nun dao?

- Hurrengua?

-Zera, [...tik] hona Muertza aldera.

- Muertza aldera?

- Bai.

- Hau, orduan?

- Etxe barrixa eindda dao oin...

- Eske hor danak dare etxe berrixak oin.

- [Inazio panaderua... ta] Estanisenak bixak bat ein juen. [...]

- Enterradorianetik Zubitta alderao?

- Gora, Infernu aldera, Infernu aldera.

- Infernuko aldera.

- Estanisena, Estanisenekua, Inazio panaderuana eta Sebas... no, ez, [Sebastian...].

- Pues no lías más.

- Espera, Sebastianena, Estanisenekua ta Inazio panaderuana.

- Baiña horrek danak darez bloke haundi baten hor etxiak eindda. Será ese bloque grande...

- Bai. [...]

- Ez, [...]

- Eta hor...

- Berrogeta hamarra ze da?

- Estanisenekua.

- Zubixan parian gare oin, e?

- Bueno, etxe haundi hori lehen esan dozuena Inaxio panaderokua edo ez dakit [zeiñena]...

- Inaxio panaderokua ta Altzeta. Horrek bixok sartu leizke hor [haundi] horretan.

- [Ez] Altzeta aparte dao, e?

- [... zeuk esan dozu, ba, batera darella]...

- [...]

- Aber, oin kale-alderao, etxe haundi horren kontra kale-alderao?

- [...]

- Aber, hurrengua.

- [... igeltserua] zein zan haura?

- Xixilioneakua.

- Xixilioneakua. Eta hor bittarte bat agertzen da.

- Eta hurrengo datorren etxia barrurao dao ya...?

- Barrura. Trapala.

- Bai, haura Trapala. Trapalakua edo... Trapala esaten gontsan.

- Trapala.

- Ez dakit zeaittik esaten jakon horri Trapala. [Baten] bat bizi zalako edo... Gero hurrengo...

- Trapala berrogeta hamalau?

- Bai.

- Antonio zerrarixa,...

- Ez, lehenau, lehenau.

- Ala Fedianekua?

- Fedianekua.

- Trapalan lehelengua Fedianekua da?

- Bai.

- Hori ya bittarte horretan aurrera, baiña horrek be...

- Hori ze da berrogeta hamabost Fedianekua?

- Bai.

- Gero Antonio zerrarrixa edo Zabalanekea be bai...  
 - [Zabala zerrarrixa... Antonio zerrarrixa...]  
 - [Antonio] zerrarrixa kasi antxiñakuaua.  
 - Eta horrek etxiorrek atzera salienterik badauka?  
 - Ez, horrek ez dauka...  
 - Zerrarrixa... Fedianekuakin batera illaran.  
 - Hau dana illaran doia.  
 - Hau salientiau ze da, ba?  
 - Hori izango da...  
 - Trapalanekea izengo dok.  
 - Trapalanekea ze da etxe haundixa?  
 - Ez. Atzera, [...] atzera sartzen da.  
 - Ta gero honek, honek ze... honek izengo da... geizki gabitz hemen? Honek ze dia, ba?  
 - Ai, ai... Ez, ez. Horrek [...] bidian darenak.  
 - A! A! [...].  
 - E! Horrek urriñao dare, e? Hor hola doia...  
 - Eta Don Pedronekea eta nun dare, ba?  
 - [...].  
 - Ez dakit ondo gabitzen hor.  
 - Trapalanekea...  
 - Eta Antonio zerrarrixa zein da, orduan? Hurrengua? Hor saliente horreandik hurrengua?  
 - Salientiaandik hurrengua da Fedianekua.  
 - Baiña hemen ez dot ikusten nik hola etxeik [illaran].

## 25. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/025
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:54:54. **Bukatu:** 01:55:50

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Begarako herriguneko toponimia.</p>

### Transkripzioa

- Antonio zerrarrixa...?  
 - Aber, zubixa...  
 - Itxoin. Fedianekua esan dozu dala...  
 - Zubixa... hau ez da, ba, izengo Trapala? Hau, saliente hau. Zeaittik hemen zubixa dao, ezta? Ta hau etxe haundi hau ta hor etxe pilla berri hori. Eta gero, ba, Altzetanekua ta hor eskiñia Xixilionekea ta gero Trapala hau. Ez, hori... hau. Y esto tiene que ser ya... Eske Don Pedronekea... Honek etxiok Goiko estaziñoko etxiak baldin badie, hemen, hemen falta da Don Pedroneko etxia ta beste bat. Aquí hemos hecho algo desde este puente que no está bien .  
 - Don Pedrona, Don Pedrona...  
 - Baiña horrek hirurok ipini...  
 - ... puskat atzerao zan, [lehen] puskat atzerao. Gero ein zotsen aurrian zer bat...  
 - Osea, Antonio zerrarrixa hurrengua da, orduan, Don Pedrona?

- Don Pedrona. Hori puskat atzerao dao.
- [...] Hauxe izan bihar dau.

## 26. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/026
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:55:50. **Bukatu:** 02:00:40

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Begarako herriguneko toponimia.</p>

### Transkripzioa

- Gero handik ez dao gehixao ezebe, Don Pedronakin akabatzen da.
- Gero hor tabloi luze... tabloi batzuk.
- Baiña harek ez dauka izenik, almazena, Igartuaneko almazena [...] egurrak. No vas a poner nombre a aquello!
- Igartuaneko almazena ipini bihar dou?
- Ke, ba! Igartuaneko...
- Mariano kojuan almazena.
- Igartuaneko almazena ta Mariano kojua almazena gauza berdiña da?
- Izenak diferentiak.
- Baiña gauza berdiña...?
- Bai, bai, [...], guk Igartuanekua esan jau beti.
- [Mariano...].
- Baiña hori luzia da, ez?
- Bai, bai, egurrak dare ta han.
- Hori [dok Infernuko kantoiraiño] ixte. Ixe.
- Estaziñoako bidia aldera?
- Bai.
- [...] atzeko tramo [...]
- Ta honei etxe honei be estaziñoako... Estaziñoako... zerak etxe berrixak.
- Horrek badauke izena, baiña...
- Bai, baiña guk esandakua Estaziñoako etxe berrixak. [Gure gaiñekuak ] zien ta etxe berrixak zien orduan. Oin, ba, oin zahartuta dare, baiña...
- Zela esaten dotse... estaziñuak badauka [izenik] edo...?
- Estaziñuak? Goiko estaziñua.
- [...] gero etxe horrek, bi etxe horrek...
- Gero bi etxe dare bidian Etxe txiki ta Villa Maria esaten gontsenak.
- [...]
- Hementxe estaziñoako bidian. [...] Ez dia agertuko igual, e?
- Hamen [...].
- Hortxe dare.
- Estaziñoako bidia [...] ez da?
- A! Hau da estaziñua, ezta?
- Bai.
- Bai, baiña hemen bidia...
- Ta hori da estaziñoako etxiak. Ba, hementxe, gora gatozela, Zubitta aldera ez, gora, holan, holako lekun baten...
- Bidiaz gaiñekaldetik dare?
- Bidian gaiñekaldetik dare.

- Bixak.

- Eta kontran dare? Bata bestian kontran?

- Bata... Bai, gertu xamarrian.

- Baiña pegante ez...

- Ez, ez, ez.

- Bixak bidian gaiñetik, e! Bidian Zubitta aldera ez, e?

- Eta zenbat distantzia dauken bataandik bestiaana gutxi gorabehera?

- Aber, itxoin, itxoin, itxoin...

- Bata bidian bertan...

- Ehun metro ez, hirurogei bat metro.

- Bata bide-bidian dao ta bestia bidia baiño pixka-pixkat trenbide alderao, goratxuao.

- Trenbide alderatxuao daona ze dao kale alderao? Beherao?

- Bai. Harek dauka izena villa Maria, ez dakit zegaittik ta noregaittik, baiña villa Maria.

- Ze numero?

- [Hirurogeta bat]?

- Ez, horrek izenak [badauzke lehengo-lehengo zaharrak].

- Geuk esaten [...] esaten [dabela].

- Ez, zeuk esaten dozuen moduan.

- Bai, hari Villa Maria ta bestia Etxe txiki. Etxe txikiko Maria, Etxe txiki haura. Horrek die horko... horko... horko izenak. Ya Zubitta akabau eitten da horrekin. [...] Zubittan gehixao ta Goiko estaziñuan be ez dao beste izenik hor. [...] Estaziñoko itturrixa be bai, [...kua], baiña...

- Oin gora.

- Oin nora?

- Infernutik gora oin.

- A! Infernutik gora?... Masterreka aldera? [...] Masterrekara?

- Bai, osea... Masterreka ze da kalia, ez?

- Bai.

- Bai, Masterreka.

- Masterreka kalia.

- De toda la vida.

- Matzerreka zuek esango dozue, baiña guk [mahatsan] Masterreka.

- [...]

- Zer?

- Hor trenb... Goiko estaziñuan agertzen dian [horrek edifiziuko] danak die...?

- Lehenau zien, ba, Estaziñua, almazena, fakturatzekua...

- Bat da jefian etxia, bestia fakturaziñua, bestia enbalajiak eukitzekua, bestia da trena sartzekua...

- Bale, nehikua. Baietz.

- Masterreka edo... nola esan dozu hori, kalia izena?

- Masterreka.

- [...] Hirurogeta hiru. Ta hori noraiño doia gora?

- Ba...

- [Kuarteleko puntaraiño].

- ... kruze bat badao han... etxe haundi eder bat?

- Santoseneko...

- Bai, bai, bai, han.

- Haraxeaiño.

- Santos Masterreka da?

- Bai, Santos bai, azkena. Ta bestekaldian daon exe haundi haura be bai, guk Don Karlosenekua esaten gotsana.

- Osea, Don Karlosenekua... Goittik behera hasiko gara, orduan?

- Bai, Don Karlosenekua. Igual da, bai. Don Karlosenekua hori.

- Beherao daona?
- Handik beherao haren illaran, ba Otazuanekeo fabrikia.
- Don Karlosen kontran bittarte bat dao atzera, ez?
- Bai, oin bai. Bai... lehen be bai.
- Bueno, hurrengo...
- Baiña lehen ez dakit zeuan bittarte hori, e?
- Ez, lehen han fabrikia zan beheraiño.
- Otazuanekeo fabrikia hor haundi bat lehenao. Oin etxiak ein dittue danak berrixak, baiña.
- Pelukerixia edo [daon zera]?
- Bai, honek Otazuanekeo... Otazuanekeo fabrikia eta... etxia lehelengua lehen zana Mekoletan etxia, txikitxo bat, ta haura be ez dakit berriztauta ez ete daon, [Sabasek] etxia ez ete zeban berrixa ein han be...
- Bai.
- Bai, ezta? Bai. Lehelengo etxia Otazuanekeo fabrikatik atzera Infernuko aldera, honutz...
- Mekoletana.
- Mekoletan etxia.

## 27. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/027
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 02:00:40. **Bukatu:** 02:05:52

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Begarako herriguneko toponimia.</p>

### Transkripzioa

- Itxoin, itxoin, behetik gora hastia igual hobe izango dou?
- Infernutik gora hastia?
- Bai.
- Ba, Infernutik gora... Infernutik gora lehelengua... lehelengo Infernuko etxiak, behera, Infernukua esaten jakona.
- Hari zela esaten gontsen izena maistruari ta...?
- Barrenanekua be bai esaten jakon etxe hari, Barrena maistrua. Ta guk bestekaldeko Taketanekuai be esaten gontsan Barrenanekua. Osea es ke... Horri guk Infernuko etxia ta goixan Barrenanekua bizi. Etxiai izena, ba, Infernukua esaten gontsan a la primera casa. Gero bigarrenai Loidiñekua. Osea, lehelenguai Infernukua, Infernuko etxia.
- Bigarrena Loidiña esan dozu?
- Bigarrenai Loidiña esaten gontsan.
- Hori ze da, bastante etxe haundixa hori?
- Bai, haundixa ta ederra. Ta hurrengo Domingo txikixanekua. Eta...
- Hurrengo Galtzairunekua txiki bat.
- Bai, [...] hurrengo Galtzairunekua bai, hori da.
- Zelan?
- `Galtzairua´, ez dakit zegaittik esaten zotsen batenbati, Galtzairunekua esaten jakon. Eta gero Galtzairunekotik, ba, horixe lehen esan dotsuten Mekoletanekua eta Otazuanekeo fabrikia. Alde hortatik ...
- Mekoletanekua ipini dou?

- Hirurogeta hamarra Mekoletanekua.

- Baiña lehen...

- Lehen ez dakit apuntau dozuen.

- Ez. Baiña beste... hortik gora ya Don Karlosenera dana da Otazuan fabrikia?

- Fabrikia zan.

- Fabrikia zan.

- Otazuan fabrikia ze numero ipini dou, hirurogeta bost?

- Bai.

- Horrek zati dextentia hartuko dotsue hor mapan. [...] Gero, Infernukuan bestekaldetik...

- Kamiñuaz gaindik...

- Kamiñuaz gaindik lehelengo Taketanekua.

- Aber, hor dao... hirurogeta bederatzixa ze [...] esan dou dala? Galtzairuneko parian bestekaldian dao etxe bakar bat, haundixa

- Intzaneke etxia, etxe haundi bat.

- Palazio haundi bat.

- Hori ze numero da?

- Ez dakit zeaittik esaten jakon Intzanekeua...

- [Klaro, hor Intzanekeuak biziko zian ta].

- Eta hortik, hortik Infernukora bittartian hemen goittik ezebez, ortua. Hor ezebez ez dao, ezebez.

- Hor ez dao izenik?

- Ez dao. Bueno, baiña hemen Infernuko parian, hemen, bai. Hemen Infernuko parian hemen kantoian bai Infernuko etxia hor. Ai... ez, Taketaneko etxia. Hor bati [zelaixok eta Taketaneko] etxia ta honek bestiok Estaziñokuak. Entenditzen dozu?

- Bai, bai, bai.

- Taketaneko etxia.

- Taketanekua.

- Lehen be apuntau [giñuan], ba.

- Taketanekua. Ta hau redondelau... Masterreka, e? Hor Taketanekua ya Masterreka da ta honek Estaziñoko etxiok be Masterreka izengo dia.

- Eta hor...

- Hor Taketanekua [...]. Eta hor bi be ein zeinkiez, oin beste bat dao eindda berrixa, baiña izena harek etxiak guk be Taketanekua. Aldemenian einddako etxiei ezebez.

- Osea, Taketanekua, gero ortuak eta gero Intzanekeua?

- Bai.

- Bai. Izenak horretxek. Ta hemen [gero...] baiña... Ta honek be oin beste bat dauka eindda aldemenian etxia baiña izena guk [...] ez, numerua [...].

- Bale, bale. Intzaneke gora?

- Intzaneke gora hurrengo...

- Bittarte bat, ez?

- Baittarte bat.

- Bai, tejabana bat.

- Eta... lehelengua Kosteinekeua lehelengo etxia.

- Zazpi hiru?

- Gero Amenabarrenekeua.

- Zazpi lau.

- Gero Leon Intzana. Leon Intzan etxia, bai, Leon Intzan etxia. Numeroik bapez.

- Ardatxanekeua, Maixuan etxia...

- Itxoin, Maixuan etxia ze da bastante haundixa?

- Oin berrixa eindda botata, baiña lehen bittarte bat zeuan.

- Bai, bittarte bat zeuan...

- Bittarte bat, etxe txiki zahar bat zan.
- Bittarte horretan bertan?
- Bittarte horretan bertan zeuan.
- Bittartetik Infernu aldera ala goraotikan?
- Infernu aldera Maixuan etxia.
- Ta gero bittarte bat...
- Ardatxaneko etxetik hurrengua zan. Oin honek ez dakit zela daon ipinitta hor. Ta gero, Ardatxanekua, Maixuan etxia ta Sardonteixa, oin Pertxa daona. Haintxe akabau Masterreka...
- [...]
- Pertxa [nun dao]...?
- Pertxa hau da.
- Pertxa hori da. Ta Pertxa daona Sardonteixa, Sardonteiko etxia esaten jakon honi.
- Maixuan etxia...?
- Maixuan etxia ta Pertxanekua bat da oin, hueko bat, zeatik oin Maixuan etxia ez dau esistitzen, Pertxa ein zeben. Entenditzen dozu?
- Hau da, orduan.
- Eta hor, hueko huandi hortan.
- Eta Saardotegixa ze esan dozu?
- Horixe, Sardonteikua, etxia.
- Osea, Maixuan etxia ta Saardoteikua gauza berdiña da?
- Bai, gauza... lekua berdin baten dare oin, baiña lehen bi etxe zien: Sardonteikua zan etxe haundi bat ta Maixuana zan etxe txiki xahar-xahar bat, oillotokixakin goixan.
- Ta bittartian [bittarte...].
- [Bi], ez?
- Pero ahora todo está en uno. Hor situatzeko ez dakit.

## 28. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/028
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 02:05:52. **Bukatu:** 02:08:20

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Begarako herriguneko toponimia.</p>

### Transkripzioa

- Gero Sardandekotik segidan harutz, ez dakit hari Sebastianeneko fabrikia [edo euki...] ondio esistitzen daben.
- Bai, hor Etxagi tabernia ta darena.
- Lehenau haura baiño holako hutsunatxo bat Sebastianenekua, baiña ez hola... izen zera ez. Etxagi tabernia Kalisto taxistia, Kalistoneko etxia edo, Kalisto taxistia esaten gotsan guk oin Etxagi daon etxiai.
- Eta horrek hola forma raro bat dauka etxe horrek?
- Horrek atzera dauke forma raro bat.
- Hori, atzekaldera.
- Atzekaldera Anguako Teodora bizi dana be han atzera dao etarata ta... atzetik oso diferente [ikusten die].
- Hori dana da, orduan, Kaliston etxia?

- Hori bloke bat. Hemen kantoiraiño, ba, etxe pillatxua dao, illaria dao.  
 - [Sananton...tik] behera...  
 - Eta dare hiru-lau atai: Santosena bat, gero [oingo] Txurrukanekua esaten gontsanori, Kalistona... hiru atai, behintzat bai. Ta Begiristain-ta bizi zianak eta, [...] etxe [...] ta...  
 - Hori zera, Txurrukana.  
 - Bat, bi, hiru... hiru-edo lau atai dare hor.  
 - [...] Txurrukanekua...?  
 - Bai, lau bat bai.  
 - Aber, itxoin.  
 - Aber. Sardandeikotik gora...  
 - Hiru atai [...].  
 - Sebastianenekua ez dakit ipini edo... Gallastegittarrak, baiña izenakin esateko... Kalistoneko etxia hori etxe kuadrau haundi bat.  
 - Hurrengua?  
 - Bai, lehelengua hola kantoittik.  
 - Oin Etxagi tabernia daona.  
 - Eta Etxagi dana da Kalistonekua?  
 - Kalistonekua lehelengo zatixai, gero hurrengua, hurrengo txiki bat... hari zela esaten gontsan? Bai... Kalistonetik hurrengua, bi pisokua bakarrik... Baiña... ez dakit izenik ez gontsan esaten.  
 - [...] Kaliston etxia da bi pisokua.  
 - Bai, hori Kalistonekua esan dou, baiña hurrenguai ez gontsan izenik esaten ta hurrenguai Txurrukaneko etxia be bai ta Anguaneko etxia be esaten gontsan, bixak bizi zien ta. Eta [Pakua] baxarriñekua be esaten gontsan. Osea, de esos tres lo que queráis.  
 - Zela esan dozu? Txurrukaneko etxia...  
 - Txurrukanekua edo Anguanekua be bai eta Pako baxarriñekua be bai. Danak bizi zian etxe baten. Con ese nombre nos entendíamos. Ta gero goratxuauan oin Santosen dendia zeuan lekuan estankua zeuan.  
 - Ta izenik?  
 - Estankua, Kuarteleko estankua esaten gontsan.

## 29. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/029
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 02:08:20. **Bukatu:** 02:10:50

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Bergarako herriguneko toponimia.</p>

### Transkripzioa

- Bestekaldia ez dou esan, [...tik] hasi ta horrek Loidiñeko ta horrek esanda dauzkau?  
 - Bai, bai, bai. Hori Masterreka dana [dao...].  
 - [... Masterreka] eindda?  
 - Bai, [...].  
 - Hari Don Karloseneko etxe aurreko plazia be... [lehen sindikatua zeuan]... [...] Don Karloseneko haura etxe haundi haura... Hau markau?  
 - Bai.

- Sindikatua edo zan lehenao...  
 - Eta oin ze dao?  
 - [...] sindikatuan [...]  
 - [...].  
 - Sindikatua esaten gotsan.  
 - [...].  
 - Burdiñateko [...] [Konde]panaderokua lehelengua.  
 - Hori ze dao, Santosena , bittarte bat eta...?  
 - Bittarte bat eta bittarte haretan iturriza be bazeuan lehenao, baiña...  
 Zinia, Zinema Bergara esaten jakona, zinia, eta zinetik gora lehelengo  
 etxia Gurlara bidian han aldapatxo haretan... hau [...] kalia da ala hau  
 goixan?  
 - Kalia hau da.  
 - Kalia hori? Ba, hor zinetik gora lehelengo etxia Kondepanaderokua esaten  
 gotsan. Panaderixia zeuan ta Kondepanaderokua.  
 - Kondepanaderokua?  
 - Hor bittarte bat dao.  
 - Kondepanaderokua ze da Santos, bittarte bat ta hurrengo etxia?  
 - Bai.  
 - Gero hor beste bittarte bat [...]...  
 - Kondepanaderokua eta hola etxe ezaunak han behetik gora Felipe  
 Txurrukana, Txurrukan etxia.  
 - Ta hori ze dao bestiak baiño atzerao?  
 - Ez, ez, illaran dare hola buelta eitten.  
 - Horrek Gorla alderao, gorao zeuan. Oin etxe berrixak dare danian einda.  
 - Nola esan dozu hori?  
 - Kondepanaderokua eta hurrengua...  
 - Felipen...  
 - Txurrukaneko etxia, euzkixan erlojua zeukana paretan.  
 - Eta horren parian atzian beste etxe bat dao...  
 - Atzien...  
 - Mendi aldera.  
 - Mendi aldera?  
 - Haura mendixan daon haura? [Gain] haura?  
 - Txorietxia esaten jakon hari bideari eta han Txorietxeko... Txorietxeko  
 txaleta esaten gotsan guk.  
 - Eta oin esan dozuna...  
 - [...ko] maistran aitta gaixoik egon zanian hor sartzeko eindako...  
 [zeindda]...  
 - Txorietxia ta ipini dozu?  
 - Txorietxia.  
 - Txorietxia esaten jakon aldapa hari danai, e? Hori etxeori daon aldapa  
 horrei danai Txorietxia esaten gotsan behetik gora...  
 - Aldapia? Bidia?  
 - Aldapia behetik gora bai. Hortik juten giñan gu Txorietxetik gora juten  
 giñan etxera be, basarrira.

### 30. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/030
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 02:10:50. **Bukatu:** 02:15:50

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Bergarako herriguneko toponimia.</p>

#### Transkripzioa

- Aber, itxoin, itxoin, Txorietxia ze da aldapia?
- Bai.
- Eta etxe hori?
- Etxe hori, ba, Txorietxian zeuan etxetxo bat. Guk hari esaten gotsan Txorietxeko etxia. Bai han Txorietxeko etxe haretatik goratxuao...
- Aldapatxo hori [Txorietxia] ta bestia Txorietxeko etxia?
- Bai, danai esaten gotsan Txorietxia. No sé por qué. Txorietxetik ziher etxera etortzen giñan gu.
- Bai?
- Ta han txabola...
- Itxoin, aldapia ze numero ipini dozu?
- Larogeta bost... Larogeta lau.
- Aldapa hori han trenbideraiñok. Hor trenbidia markatzen dau?
- Bai.
- [Goixan dao]. Trenbideraiñoko hori aldapa hori behetik gora eskillarak zeren hor beheko zinetik goraiño, trenbideraiño.
- [...]
- Ta lehen Txurrukaneko etxiak bi esan dozue...
- Bai, eske Txurrukaneko Txurrukaneko benetakua, amandriana-ta zan hau euzkixa daon oin esan dotsuetenau.
- Basarrixa.
- Bai. Ta gero horren semia, Felipe Txurruka, bizi zan beste beheko etxe horretan lehen ipini dozuen etxe hortan eta hari be, ba, Txurrukanekua esaten gotsan. Danak zien familixakuak, baiña autentikua Txurrukaneko etxe basarrixa hori, zeatik hori kale-basarrixa zan hori, oin Burdiñaten eindda daon [...]. Ta hango zaltaixan euki zeban gero Ezenarrok, ba, Txurrukanekuan loibiak euki zeban, ba, automobilak arreglatzia [...].
- Txoritxikittik hurrengo daona zein da Burdiñate edo hori?
- Hori Burdiñatek horrek ez zeukan izenik guretako, Santanako [kondia] beste izenik ez zeukan horrek.
- Hemen Burdiñate ipiniko dou ala...?
- Ez, Burdiñate ez da gure denporakua. Oin ipinittako izena da hori.
- [...]
- Ba, ipini nahi badozu, [oin halaxe] esaten jako.
- Holan, zuek be oin holan...
- Bai, bai, holaxe esaten dou guk. Hori oin dala hogei bat urte edo [... ipinittako izena da Burdiñate]. Ta gero ya Santanako palaziua, beheko kondian etxia.
- [...].
- [Oin] casa cultural ta horrek kaballo-etxiak eta kaballuak zaintzekua ta ez dakit zertzuk.
- Santanako palaziua?
- Santanako palaziua hori. Ta atzian kaballuen zaltaixa edo esaten jakona.
- Hori, orduan, zela esan dozu?
- Nun zoian hori?
- Azkenengo esan dozuna da Santanako palaziua, baiña beste izenen bat daukala edo, ez?
- Guk Beheko kondia.
- Beheko kondia?

- Bai. Beheko kondia ta Goiko kondia zien, ta guretako, izenez, bata conde de Villafranca ta bestia ez dakit ze zien, baiña...

- Baiña etxiai Beheko kondia?

- Beheko kondekua, bai.

- Oin [...] Jauregi edo...

- Bai oin izen berrixak dare danian.

- Eta horrek hor atzian kaballuak edo euikitzen zittuela esan dozu...

- Bai, hala esaten zebeñ, haura atzeko...

- Aparteko izenik ezebe ez dau eukiko?

- Ez, ez, Beheko kondian etxia.

- Ta gero gora hor elizia edo ez dakit zer daon.

- Ermittia.

- Santana ermittia, bertako Beheko kondian kapillia hori.

- Eta hor ermittatik kamiño aldera beste etxe bat dao.

- [...].

- Kamiño onduan be badao...

- Kamiño onduan.

- Haura zan... Kamiñeruana.

- Kamiñeruan etxia.

- [...]

- Oin be han dao hori.

- Bai. polit askua, gaiñera.

- Ta gero, ba, Santana ermittian ondo-onduan Bolu basarrixa.

- Pegante?

- Ez, aparte, e? Puskat aparte.

- Bueno, aparte, baiña hau ta hori balitz bezela edo hola.

- Hori [...] edo? Aurrekuan beste [...]...

- Eske desapareziduta [...] mapan...

- Ez dao?

- Ez, ez, ez dao [...].

- Basarririk oin ez dao.

- Ez?

- Oin etxiak dare hor. Hor markatzen dau etxiak? Etxe pillia han [Bolukuan]

...

- Bai.

- Eta hori etxe... Bolu basarrixa ermittiaandik mendi alderao dao?

- Bai, puskat, puskat.

- Ermittatik Gorla aldera, pixka-pixkat goratxua. Baiña bertan, e? Oin frontoia badao, ba?

- Hantxe bertan.

- Frontoia daon lekuan bertan zeuan Bolu basarrixa.

- Hori Bolu?

- Bai.

- Ze numero?

- Larogeta hamar.

- Ta gero gorauan Gorla aldera hor etxe pillia hori pasau ta akaberañ [...], hor [...]. Oso goixan.

- Eta etxe horrei nola esaten jatzu, etxe pillia horri?

- Etxe pillia horri?

- Berrixai? Bolukua.

- Boluko etxiak?

- Zeaittik hau basarri hau Bolua zan ta hori da Bolukua, Bolua.

- Horrek Boluko etxiak.

- Ze numero?

- Larogeta [hamaika].

- Alde bittatik hor Bolu parian...

- Izena [...] horrek numero barrixekin ipinita [...].
- Eta gero...?
- Ta bestekaldiai, bestekaldiai be, ba, hor Bolu parian guk danai Bolua. Bestaldekuai, berriz, Iraburu aldia.
- Iraburu txiki ta haundi.

### 31. Bergarako herriguneko toponimia

- **Erref:** BER-240/031
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 02:15:50. **Bukatu:** 02:17:30

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

#### Laburpena:

<p>Begarako herriguneko toponimia.</p>

#### Transkripzioa

- Iraburuak hemen markatzen ditte? Honek izengo die? Ala ez? Iraburu txiki ta haundi honek izen leizke?
- San Pedroko elizia agertzen da hor? Ikusten da?
- [...]
- Eta honek esan dozu Iraburuko etxiak, orduan?
- Bai, horrek Iraburuko etxiak.
- Iraburu haundi eta txiki.
- Iraburuko etxiak ze numero? Larogeta bi?
- Larogeta hamabi.
- Gero Iraburu inguruko izenak be esango dotsuet batzuk akordatzen banaiz.
- Eta Iraburuko etxiak ze dia behian darenak? Hor gorao darenak ez, hor bi etxe bloke dare: honek Euzkitza ta daren...
- Horrek ya Peulde aldia guk, Peulde aurrian dare indda ta. Horrek Peulde onduan dare horrek Euzkitzan-ta inguru horrek.
- Hori dana Bolua [ez da]?
- Ez, Peulde aldia, Bolua beherao, hori Peulde aldia. Bestia Bolu aldia ta hori Iraburu aldia. [...].
- Ta Iraburutik oin etxiak eindda daren aldia be Santana aldia esaten jakuen, han [Iraburukuan ...tik].
- Aber, Iraburu zein da, San Pedroko elizian parian atzian daona?
- Bai.
- Itxoin. San Pedroko elizatik... hau izango da bidetxurra gora, hau izengo da Santana... hau Goiko kondia izango da, e? Iraburu ez. Goiko Kondia hori haundi hori.
- [Larogeta hamalau]?
- Bai.
- Goiko Kondia. Hau beste luze hau ez dot entenditzen ze dan.
- Hau...
- Hori ze?
- [Mojak ez dare]...?
- Aber, San Pedro hamen...
- Hori depositua edo halakon bat bazan hor...



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com